

ITAROA KIROL INSTALAZIOETAN KUOTAK DOITZEA GREBAREN ONDORIOZ

1- ITAROA KIROL INSTALAZIOETAKO ABONATUEN HILEKO KUOTA

Uharteko Udalak ez du hileko kuota osoa kobratuko grebak iraun duen bitartean (urriaren 18tik urtarrilaren 10era), nahiz eta unean uneko irekierak egin diren.

Konpentsazioa honela egingo da:

Azaroko eta abenduko hileko kuotaren ordainagiriak ez dira igorri greba dela-eta

Urtarrilean igorriko den ordainagiriak instalazioa osorik irekita egon den urtarrileko egunak hartuko ditu kontuan, urriko greba egunak kenduta.

2022ko urriaren 18tik aurrera instalazioan baja eman duten pertsonak urriko ordainagiriaren zati proportzionala itzultzeko eskatu beharko dute Spa Sport Itaroa Uharteko kirol instalazioen harreraren edo deportesitaroa@huarte.es posta elektronikoaren bidez.

Urriko ordainagiria itzuli duten abonatuak Spa Sport Itaroa Uharteko kirol-instalazioen harreraren ordaindu beharko dute, urriko itxiera-egunen konpentsazioa urtarrilean egingo baita.

2- ITAROA KIROL INSTALAZIOETAKO ABONATUEN SEI HILABETEKO EDO URTEKO KUOTA

Sei hileko edo urteko kuota duten abonatuak kasuan, Uharteko Udalak luzatu egingo du iraungitze-epea, grebak iraun duen bitarteko egunengatik (urriaren 18tik urtarrilaren 10era)

2022ko urriaren 18tik aurrera instalazioan baja eman duten pertsonak urriko ordainagiriaren zati proportzionala itzultzeko eskatu beharko dute Spa Sport Itaroa Uharteko kirol instalazioen harreraren edo deportesitaroa@huarte.es helbidearen bidez.

3- ITAROA KIROL INSTALAZIOETAKO ARMAIRUAK ALOKATZEKO KUOTA

Uharteko Udalak ez du alokairu kuota osoa kobratuko grebak iraun duen bitartean (urriaren 18tik urtarrilaren 10era).

Konpentsazioa honela egingo da:

Azaroko eta abenduko alokairu kuotaren ordainagiriak ez dira igorri greba dela-eta.

Urtarrilean igorriko den ordainagiriak instalazioa osorik irekita egon den urtarrileko egunak hartuko ditu kontuan, urriko greba egunak kenduta.

2022ko urriaren 18tik aurrera instalazioan baja eman duten pertsonen urriko ordainagiriaren zati proportzionala itzultzeko eskatu beharko dute Spa Sport Itaroa Uharte kirol instalazioen harreran edo deportesitaroa@huarte.es posta elektronikoaren bidez.

Urriko ordainagiria itzuli duten abonatuak Spa Sport Itaroa Uharte kirol instalazioen harreran ordaindu beharko dute, urriko itxiera-egunen konpentsazioa urtarrilean egingo baita.